

Mikel Errasti, Aginaga sagardotegia

“Sagardo ona dugu, gustura edateko horietakoa”

Zer moduzko sagardoa aurtzen?

Aurtzen sagardo ona dugu, gorputz handikoa, usain eta zapore garbiarekin eta freskoa, gustura edateko horietakoa.

Zer bezero aurreikuspen duzue?

Gu baikor gaude eta pasa den urtea hainbestekoa baldin bada aurtengoa, ez gara kexatuko.

Gurean, bezero mota ezberdin asko ditugu. Bertako jendea, sagardotegiko garaian sagardoa probatzera etortzeko ohitura duena, inguruko probintzietatik taldean egun pasa datozena, urte osoan etortzen diren bezeroak... Pasa den urtetik, Hotela ireki genuenetik, asteburu pasa etortzen direnak ere badira, Txotx garaia aprobetxatuz. Abantailatxo bat ere badugu, Donostia Zumaia lineako autobusak, guretik 50 metrotara du galeakua eta jendeak ez du arduratu behar



Urte osoan irekita, astelehenak itxita. Eguerdian, 13:30ean, iluntzean 20:00etan.

kotxea hartzeaz.

Zer berezitasun ditu eskaintzen duzuen zerbitzuak?

Gure berzitasuna, sagardotegiko menua da: bakailau tortila, bakailaua piper berdeekin eta idi txuleta entsaladarekin. Postrerako ardi gazta, sagar

dultzea (guk geuk egina, Agiñako errege sagarrekin) eta intxaurrak. Honetaz gain, karta zabal bat ere eskaintzen dugu, euskal sukaldaritza tradizionalean oinarrituta. Enkarguz, arkumea, txerrikumea... ere prestatzen ditugu. Lehengo urtean hasita, haragiaren kalitatearekiko egin dugu apus-

tu, eta jendeak nabaritu du. Izugarria dago! Ospakizun berezietarako jangela ere eskaintzen dugu, ezkontzak ematen ditugu...

Gonbidatu zuen sagardotegira...

Gustura hartuko zaituztegu. Etorri eta dastatu jangelan ditugun 7 kupeletako sagardo ezberdinak. Eta oso sagardoazale bazarete, gure upategirako bidea ere irekiko dizuegu! Eskatu besterik ez duzue! Jateko goxoa ere izango duzue platerean!!

Aginaga sagardotegia

Helbidea: Aginaga auzoa.

943 36 67 10 // 943 37 06 68.

info@aginagasagardotegia.com

aginagasagardotegia.com

Zerbitzuak: Sagardotegiko menua, urte osoan sagardoa txotxetik, kartarra jateko aukera. Ospakizunetarako menu bereziak, ezkontzak... Lotarako lekua; Hotela**.